



Recurso 6/2016 errekurtsua
Resolución 6/2016 ebazpena

Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A. (TSST) sozietateak kontratazioari buruzko ezarritako errekurtsu berezian (2016ko irailaren 19an Kontratazio Mahaiak hartutako erabakiaren aurka, zeinaren bidez sozietate hori kanporatu egiten baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren Organismo Autonomoa den (16-07 espediente) ULIAZPI FUNDAZIOAREN Donostiako eta Fraisoroko zentroetako garraioan zaintza pertsonaleko zerbitzua kontratatzeko prozeduran), Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, 2016ko abenduaren 22ko bileran, goian zerrendatzen diren kideek parte hartuta, erabaki hau hartu du aho batez.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2016ko urriaren 10ean Auzitegi honen erregistroan aurkeztutako idatzi baten bidez, (...) jaunak, COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A. (TSST) sozietatearen izenean eta ordezkartzan, errekurtsu berezia aurkeztu zuen kontratazio alorrean ebazpen honen goiburuan aipatzen den erabakiaren aurka.

Idatziarekin batera, esku hartzen duen pertsonaren ordezkartza egiaztatzen duen agiria aurkezten du eta baita kanporatze erabakiaren eta Uliazpi Fundazioari zuzendurik urriaren 5ean aurkeztutako errekurtsuaren aurretiazko iragarkiaren kopia ere, hala egiteko eskatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 44.1 artikulua, zeina 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Arautzailearen bidez onartu baitzen.

BIGARRENA.- SPKLTBren 43.2 eta 46.2 artikuluetan eta kontratazio alorreko erabakiak berrikusteko prozedura berezietako Erregelamenduaren, irailaren 11ko 814/2015 Errege Dekretuak onartuaren, 28. artikuluan ezarritakoarekin bat, Auzitegiak errekurtsuaren kopia bat bidali zion "Uliazpi

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A. (TSST) contra el acuerdo de la Mesa de Contratación de 19 de septiembre de 2016 por el que se la excluye del procedimiento de contratación del servicio de cuidados personales en el transporte de los centros Donostia y Fraisoro de la FUNDACIÓN ULIAZPI, Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa (expediente 16-07), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 22 de diciembre de 2016, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 10 de octubre de 2016, don (...), actuando en nombre y representación de COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A. (TSST), interpuso recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo citado en el encabezamiento de esta resolución.

Al escrito de interposición se acompaña el documento que acredita la representación de la persona interviniente, así como copia del acuerdo de exclusión y del anuncio previo de interposición del recurso presentado el 5 de octubre ante la Fundación Uliazpi, tal como exige el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF).

SEGUNDO.- De conformidad con lo establecido en los artículos 43.2 y 46.2 del TRLCSF y en el artículo 28 del Reglamento de los procedimientos especiales de revisión de decisiones en materia contractual aprobado por Real Decreto 814/2015, de 11 de septiembre, el Tribunal remitió copia del recurso al

Fundazioa" foru erakunde autonomoari, eta kontratazio espediente eta errekursoari eta bertan eskatzen diren behin-behineko neurriei buruzko txostena eskatu zizkion.

HIRUGARRENA.- Urriaren 14ko datan kontratazio espediente eta erakunde autonomoaren txostena jaso ziren Auzitegian; dena den, jasotako dokumentazioa osorik ez zegoela iritzita, urriaren 18ko idazkiaren bidez errekerimendu bat egin zitzaion kontratazio organoari, espedientearen kopia osoa bidal zezan; eta kopia hori urriaren 20an jaso zen Auzitegian.

LAUGARREN.- Berebat Diot formularen bidez, orobat eskatzen da kautelazko neurria hartzea, hots, kontratazio espedientearen tramitazioa etetea, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 111.2 artikuluan dioena oinarri hartuta. Auzitegiak, 2016ko urriaren 18ko ebazpenaren bidez, lehiaketa bidezko esleipen prozedura kautelaz etetea erabaki zuen, harik eta errekursoa ebatzi arte.

BOSGARRENA.- Urriaren 21eko ofizioen bidez, Auzitegiak errekursoa helarazi zien LARRIALDIK S.COOP. eta AUTOCARES DíEZ S.A.ri, bost egun balioduneko epean egin ahal izan zitzaten egoki irizitako alegazioak, SPKLTBren 46.3 artikulua xedatuarekin bat. Horretarako emandako epean, LARRIALDIK S.COOP.ek (LARRIALDIK ANBULANTZIAK, S.L. bihurturik) errekursoaren kontrako idazkia aurkeztu du Auzitegi honetan, bertan azalduz egoki irizten diren alegazioak; eta errekursoa oso-osorik ezestea eskatzen du. Beste lizitatuak, AUTOCARES DíEZ, S.A.k, ez du alegaziorik egin.

Organismo Autónomo Foral "Fundación Uliazpi" y le solicitó el expediente de contratación y el correspondiente informe acerca del recurso y de las medidas provisionales que en él se solicitan.

TERCERO.- En fecha 14 de octubre se recibió en el Tribunal el expediente de contratación y el informe del Organismo Autónomo; no obstante, considerando que la documentación recibida se encontraba incompleta, mediante escrito de fecha 18 de octubre se realizó requerimiento al órgano de contratación para que remitiera copia completa del expediente, que fue recibido en el Tribunal en fecha 20 de octubre.

CUARTO.- Mediante oficio se solicita la adopción de la medida cautelar consistente en la suspensión de la tramitación del expediente de contratación. Oído el órgano de contratación, por Resolución de 18 de octubre de 2016 el Tribunal acordó suspender cautelarmente el procedimiento de adjudicación del contrato hasta que se resuelva el recurso.

QUINTO.- Mediante oficio de fecha 21 de octubre el Tribunal dio traslado del recurso a LARRIALDIK S.COOP. y a AUTOCARES DíEZ S.A. para que en el plazo de cinco días hábiles formularan las alegaciones que estimaran convenientes, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 46.3 del TRLCSP. En el plazo concedido al efecto LARRIALDIK S.COOP. (transformada en LARRIALDIK ANBULANTZIAK, S.L.) ha presentado ante este Tribunal escrito de oposición al recurso en el que expone las alegaciones que considera pertinentes y solicita la íntegra desestimación del recurso. El otro licitador, AUTOCARES DíEZ, S.A., no las ha formulado.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Errekurtsuaren onargarritasuna

LEHENA.- Kontratazio Mahaiak 2016ko irailaren 19an hartutako akordioaren kontra jartzen da errekursoa, akordio horren indarrez errekurtsogilea SPKLTBren II. Eranskinen 25. kategorian sartutako zerbitzu baterako kontratazio prozeduratik kanpo geratu baitzen; zerbitzu horren balio zenbatetsia 209.000 eurotik gorakoa da, 997.000 eurokoa zehazki, BEZ gabe.

Beraz, lizitatuak bat baztertzeko ekintza bat izaki, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 40. artikuluen 1.b) eta 2.b) ataletan aurreikusitakoaren arabera, kontratazio alorreko errekurso berezia jar daiteke, eta Auzitegi honek eskumena du horren gainean erabakitzeko, kontratazio alorreko errekursoetarako Foru Auzitegi Administrazioaren sorrerari eta araudiari

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- El recurso se interpone contra el acuerdo de la Mesa de Contratación de 19 de septiembre de 2016 por el que se excluye a la recurrente del procedimiento de contratación de un servicio comprendido en la categoría 25 del Anexo II del TRLCSP cuyo valor estimado es superior a 209.000 euros, concretamente 997.000 euros, IVA excluido.

Por tanto, tratándose de un acto de exclusión de un licitador, de conformidad con lo dispuesto en los apartados 1, letra b), y 2, letra b), del artículo 40 TRLCSP, dicho acto es susceptible de recurso especial en materia de contratación, y la competencia para conocer del mismo corresponde a este Tribunal, por así venir establecido en los artículos 2.1 y 2.3.a) del



buruzko 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak 2.1 eta 2.3.a) artikuluetan xedatutakoaren arabera.

BIGARRENA.- Errekurtsoa Kontratuen Legeko 42. artikuluan xedatutako legitimazioaren eskakizuna betetzen duen pertsona batek jarri du, betiere 44.2.b) artikuluan finkatutako epearen barruan eta asmo horren berri, 44.1 artikuluan ezarritako eran, kontratazio organoari aurretik emanda.

Auziaren funtsa

HIRUGARRENA.- Gobernu Batzordeak, 2016ko uztailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, onartu egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakunde autonomo Uliazpi Fundazioaren Donostia eta Fraisoroko zentroetako garraiorako zaintza pertsonaleko zerbitzua kontratzeko espediente; horren barnean dira baldintza administratibo partikularren agiria eta ezaugarri teknikoena. Era berean, kontratua esleitzeko prozedura irekia abiatzea xedatu zen.

Kaudimen tekniko edo profesionalari dagokionez, baldintza administratibo partikularren agiriko 9. klausulak horien egiaztapena ezartzen du, batetik azken bost urtean egindako zerbitzu nagusien zerrenda baten bidez, betiere horien xedea lizitatzen den kontratuarenaren berdina edo antzekoa bada, eta fakturazio bolumen jakin bat ere jasota, eta bestetik titulazioaren bidez, zehazten baitu ezen kontratatzen den jarduerako koordinazio eginkizunak eta Uliazpi Fundazioarekiko harremanak bere gain hartzen dituen pertsonak gutxienez lizentziatura edo unibertsitateko gradu maila egiaztatu beharko duela, hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 euskara mailarekin batera.

Kaudimen teknikoa egiaztatzearen, Lasarte-Oriako Udalaren Eguneko Zentroko erabiltzaileen garraio egokituaren zerbitzua emateko 2009ko urtarrilaren 8an izenpetutako kontratu administratiboa aurkeztu zuen errekurtsogileak; kontratu horren epea 2009ko urtarrilaren 1etik 2012ko urtarrilaren 31ra bitartekoa izan zen. Horretaz gain, aipatu udal beraren udalbatzaren akordioa aurkeztu zuen, 2012ko abuztuaren 23koa, autobus bidezko Lasarte-Oriako hiriko bidaiari-garraio zerbitzu erregularraren emakida administratiboa esleitzen diona, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren idazkari teknikoak emandako ziurtagiria ere, errekurtsogileak 1955eko urteaz geroztik Zubieta-Lasarte-Donostia linean eta 1976ko urteaz geroztik Tolosa-Andoain-Donostia linean emandako hiri-arteko bidaiari-garraio zerbitzu erregularrei buruzkoa, 2011tik 2015era bitarteko

Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- El recurso ha sido interpuesto por persona que reúne el requisito de legitimación establecido en el artículo 42 TRLCSP, dentro del plazo previsto en el artículo 44.2.b) y habiéndolo anunciado previamente al órgano de contratación en la forma prevista en el artículo 44.1.

Fondo del asunto

TERCERO.- Por acuerdo de la Junta de Gobierno de 21 de julio de 2016 se aprobó el expediente de contratación del servicio de cuidados personales en el transporte de los centros de Donostia y Fraisoro del Organismo Autónomo de la Diputación Foral de Gipuzkoa "Fundación Uliazpi", que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas, y se dispuso la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato.

En lo que se refiere a la solvencia técnica o profesional la cláusula 9 del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP) establece su acreditación, por un lado, mediante una relación de los principales servicios realizados en los últimos cinco años, con un determinado volumen de facturación, cuyo objeto coincida o sea similar al del contrato que se licita, y por otro, mediante la indicación de que la persona que asuma las funciones propias de coordinación de la actividad que se contrata y de relación con la Fundación Uliazpi acredite una titulación mínima de Licenciatura o Grado universitario, así como el nivel de euskera C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

La recurrente, al objeto de acreditar la solvencia técnica, aportó contrato administrativo suscrito el 8 de enero de 2009 para la prestación del servicio de transporte adaptado de las personas usuarias del Centro de Día del Ayuntamiento de Lasarte-Oria por un período que abarcó desde el 1 de enero de 2009 al 31 de enero de 2012; acuerdo del Pleno del mismo Ayuntamiento de fecha 23 de agosto de 2012 por el que se le adjudica la concesión administrativa del servicio regular de transporte público urbano de viajeros mediante autobús, de Lasarte-Oria; y certificación expedida por el Secretario Técnico del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa respecto de los servicios interurbanos de transporte regular permanente de viajeros relativos a la línea Zubieta-Lasarte-San Sebastián prestados por la recurrente desde el año 1955 y desde el año 1976 de los de la

fakturazio bolumen osoarekin batera.

Bestetik, eta jarduera koordinatzeko eginkizunak bere gain hartuko lituzkeen pertsonari dagokionez, unibertsitateko Gizarte Laneko diplomadun titulu ofiziala aurkeztu zuen.

LAUGARRENA.- Uliazpi Fundazioaren Kontratazio Mahaiak, lizitatzailleek aurkeztutako I. gutun-azaleko dokumentazioa aztertu ondoren, zuzentze errekerimendua egin zion sozietate errekurtsogileari, hain zuzen ere justifika zezan kontratuaren xedearen berdineko edo antzeko zerbitzua eman izana; eta justifika zezan, era berean, koordinatzaileak betetzen zuela baldintza-agirietan jasotako "lizentziatura edo gradu" maila, esate baterako egiaztatuz diplomatura graduarekin baliozkotzen duen titulu baliokidea.

Lehen kontuari dagokionez, errekurtsogileak alegatu zuen baldintza-agiriak derrigorrezko jasotzen duela kontratuarenaren berdineko edo antzeko xedea duen zerbitzu edo lan bat eman izana eta, kontratuaren xedeak berariaz jasotzen ez badu ere, hori ez dela zaintza pertsonaletara mugatzen, zeren eta funtsezko piezatzat jasotzen baitu erabiltzaileen garraio erregularra, eta horretarako ibilgailu egokitzuz eta horietarako gidatze, mantentze eta kontrol ekipoz osatutako azpiegitura bat behar dela. Ondoren, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan sartutako gipuzkoar administrazioen esparruan errepidezko bidaiarien garraio zerbitzu publiko erregularrak bateratzeko araudiko zenbait artikuluren edukia gogorazten du, hurrena ondorioztatzearen antzekotasun nabarmenak dauzkatela TSSTk ematen duen garraio zerbitzu erregularrak, honetan pertsonalak zaindu eta artatu behar izaten baititu bidaiariak, eta Uliazpi eskatzen duen garraioko zaintza zerbitzuak.

Zuzendu beharreko bigarren kontuari dagokionez, BOEn argitaratutako zenbait dokumentu aurkeztu zituen errekurtsogileak, fotokopiatuak: 1027/2011 Errege Dekretua, uztailaren 15ekoa, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazio Esparru Espainiarra (MECES) ezartzen duena; Unibertsitate Politikako Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko otsailaren 11ko Ebazpena, 2016ko urtarrilaren 29ko Ministro Kontseiluaren erabakia argitaratzekoa, horren bidez zehazten baita Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazio Esparru Espainiarraren mailan Gizarte Laneko unibertsitateko diplomadun titulu ofizialak duen baliokidetasun maila; eta Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren komunikazio bat, horren arabera Ministro Kontseiluaren erabakia BOEn argitaratzearekin eta unibertsitate titulua aurkeztearekin egiaztatzen baita baliokidetasunaren

línea Tolosa-Andoain-Donostia, así como del volumen total de facturación de los años 2011 a 2015.

Por otro lado y en relación a la persona que asumiría las funciones de coordinación de la actividad aportó Título Universitario Oficial de Diplomada en Trabajo Social.

CUARTO.- La Mesa de Contratación de la Fundación Uliazpi, tras analizar la documentación del sobre I presentada por los licitadores, realizó requerimiento de subsanación a la sociedad recurrente en el sentido de que justificara el haber prestado un servicio coincidente o similar con el objeto del contrato, así como que acreditara que la titulación de la persona coordinadora cumplía con el nivel académico de "licenciatura o grado" recogido en los pliegos, acreditando, por ejemplo, el correspondiente título equivalente que convalidara diplomatura con grado.

Respecto a la primera cuestión alegó la recurrente que el pliego establece como obligatorio haber prestado un servicio o trabajo cuyo objeto coincida o sea similar al del contrato y que, aunque el objeto del contrato no lo establezca explícitamente, éste no se limita a los cuidados personales, ya que incluye como pieza fundamental el transporte regular de las personas usuarias, y que para ello se precisa de una infraestructura de vehículos adaptados y sus correspondientes equipos de conducción, mantenimiento y control. Invoca a continuación el contenido de diversos artículos del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, para concluir que hay evidentes similitudes entre el transporte regular que presta TSST, en el que el personal debe atender y cuidar de las personas viajeras, y el servicio de cuidados en el transporte requerido por Uliazpi.

En lo que se refiere a la segunda cuestión objeto de subsanación la recurrente aportó fotocopia de las publicaciones en el BOE del Real Decreto 1027/2011, de 15 de julio, por el que se establece el Marco Español de Cualificaciones para la Educación Superior (MECES), de la Resolución de 11 de febrero de 2016, de la Dirección General de Política Universitaria, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 29 de enero de 2016, por el que se determina el nivel de correspondencia al nivel del Marco Español de Cualificaciones para la Educación Superior del Título Universitario Oficial de Diplomado en Trabajo Social, y una comunicación del Colegio Oficial de Trabajo Social de Bizkaia conforme a la cual la validez de la correspondencia se acredita con la publicación en el BOE del Acuerdo del Consejo de Ministros y aportando el título universitario, es decir, sin ser



balioa, hau da, dagokion ministerioak ziurtagiririk eman beharrik gabe.

BOSGARRENA.- Errekurtsogileak aurkeztutako dokumentazioa analizaturik Kontratazio Mahaiak, 2016ko irailaren 19an egindako saioan hartutako akordioaren bidez, erabaki zuen hura kontratazio espedientetik kanpo uztea eta espediente lizitaziorako onartutako enpresa biek in segitzea, hau da, LARRIALDIK S.COOP. eta AUTOCARES DÍEZ S.A.rekin.

Inpugnatutako bazterte akordioari oinarria emateko, honakoa hartu da kontuan: pertsonen garraio zerbitzu erregularrak baditu "mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentsorial duten pertsonen zerbitzua erabili ahal izatea bermatzeko" eginkizunak, eta eskakizun horiek bat datoz, irisgarritasunaren alderdiei dagokienez, kontratuaren xede den zerbitzuarekin, baina ezinbesteko elementuetako bat laguntzaileek erabiltzaileei eskaini beharreko arreta da, eta errekurtsogileak aurkeztu duen zerbitzuak ez du hori ematen; are gehiago, bada xedeak berdinak ez direla agerian uzten duen elementu bat, kontratuaren xede diren zerbitzuen erabiltzaileak ez izatea, alegia, pertsonen garraio erregularreko erabiltzaileak, pertsona horiek ez direlako autonomoak eta garraio zerbitzu erregular horrek ez dielako dituzten beharrei erantzuten.

Jardueraren koordinatzailearen titulazio akademikoari dagokionez, Kontratazio Mahaiak ulertzen du errekurtsogileak ez duela aurkeztu pertsona izendatuak baldintza-agirietan eskatzen den gradu edo lizentziatura titulazio espezifikoak daukala egiaztatzen duen inolako dokumentu espezifikorik.

SEIGARRENA.- TSST sozietateak kontratazio alorreko errekurtsu berezia aurkeztu du bazterte erabakiaren kontra. TSSTk ezarritako errekurtsuak nagusiki eskatzen du ezabatzea bazterteko erabakia, jarduerak I. gutun-azalak zabaldu aurreko unera lehengoratzeta eta TSST onartzea, eta LARRIALDIK S.COOP eta AUTOCARES DIEZ SA bazterteza.

Subsidiarioki, eskatzen du 9.1 baldintza ezabatzea eta, erremisioz, Baldintza Administratibo Berezien Agiriko 6. baldintza ere bai, eta jarduerak agiri berri bat egiteko unera lehengoratzeta.

Errekurtsuak lau arrazoi ditu oinarri. Horietako lehenean, ulertzen da zerbitzu edo lanen arteko "antzekotasun" kontzeptuaren okerreko interpretazio batera jotzen duela bere erabakian kontratazio

necesario que se expida un certificado por el Ministerio correspondiente.

QUINTO.- Analizada la documentación presentada por la recurrente, la Mesa de Contratación mediante acuerdo adoptado en sesión celebrada el 19 de septiembre de 2016, resolvió su exclusión del expediente de contratación y continuar éste con las dos empresas admitidas a licitación, en concreto, LARRIALDIK S.COOP. y AUTOCARES DÍEZ S.A.

El acuerdo de exclusión impugnado se fundamenta en el hecho de que, si bien el servicio de transporte regular de personas conlleva aparejadas funciones para "garantizar el uso del servicio a personas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial", y que tales exigencias son coincidentes en aspectos de accesibilidad con el servicio objeto del contrato, un elemento imprescindible es la atención prestada a los usuarios por parte del personal ayudante, elemento del que entiende que carece el servicio aportado por la recurrente; y que lo que evidencia la falta de similitud es que los usuarios de los servicios objeto del contrato no lo son del transporte regular de personas, por carecer ellos de autonomía y no dar este servicio respuesta a sus necesidades.

Respecto a la titulación académica de la persona coordinadora de la actividad, la Mesa de Contratación considera que la recurrente no ha aportado documento específico que acredite que la persona designada es poseedora de la específica titulación de Grado o Licenciatura exigida en los pliegos.

SEXTO.- Contra el citado acuerdo de exclusión la sociedad TSST interpone recurso especial en materia de contratación, en el que solicita con carácter principal que se declare la nulidad del acuerdo de exclusión, se acuerde la retroacción de las actuaciones al momento de apertura de los sobres I y se proceda a la admisión de TSST y a la exclusión de LARRIALDIK S.COOP. y de AUTOCARES DÍEZ S.A.

Con carácter subsidiario pide que se declare la nulidad de los pliegos, en concreto, de la cláusula 9.1 y, por remisión, la cláusula 6 del PCAP, y se retrotraigan las actuaciones hasta el momento de la elaboración de un nuevo pliego.

El recurso se funda en cuatro motivos. En el primero de ellos entiende que el órgano de contratación toma como premisa de su decisión una interpretación equivocada del concepto de "similitud" de servicios o

organoak, kaudimena egiaztatzearen ondorioetarako, doktrina administratiboaren eta jurisprudenziaren kontra joz. Bigarrenean, urratuzat jotzen dira tratu berdintasun, lehia libre eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, SPKLTBren 1. eta 139. artikuluetan jasoak. Hirugarren arrazoian kontratuko baldintza-agirien baliorik eza aipatzen du, kontratazio organoaren jarduera arbitrarioa babesten dutela ulertzen baitu. Azkenean, baztertze erabakiaren motibazio falta alegatzen du, errekursoaren arabera jarduera koordinatzeko pertsonaren titulazioak betetzen baitu baldintza-agirietan eskatzen den kaudimen profesionalari buruzko eskakizuna.

ZAZPIGARRENA.- Bazterketa oinarritzen duten arrazoiak eta errekurtsogilearen alegazioak ikusirik, orain kontua da zehaztea, lehen-lehenik, hark emandako eta egiaztatutako zerbitzuak kontratuaren xede diren zerbitzuen berdinak edo antzekoak diren.

Kontratazio Alorreko Errekurtsioetarako Administrazio Auzi Zentralak dagoeneko zenbait ebazpenetan adierazi du, urriaren 7ko 799/2016 ebazpenean aipatzen duen apirilaren 18ko 150/2013 ebazpenean bezala, ezen egindako zerbitzu edo kontratuen xedearen eta kontratuaren xede direnen arteko antzekotasuna ikusteko, kontuan harturik betiere enpresaren kaudimen teknikoa egiaztatu behar dela, lan haietarako eskatutako baldintza teknikoaren balorazio batera jo behar dela, lizitazioaren gai den kontratuan eskatutakoekin alderaturik, eta horretarako jarraituz agindu teknikoaren baldintza-agirietan jasoari, agiri horiei baitagokiek, ez beste ezer, kontratuko prestazioak garatzeko eduki behar diren ezaugarri teknikoak zehaztea, SPKLTBren 116.1 artikuluan eta APKLEOren 68.1.a) artikuluan xedatutakoarekin bat. Azken batean, kontua da kontratuetako prestazioen edukiaren ebaluazio tekniko bat egitea, hain zuzen ere zehaztearren dagoeneko garatutako prestazioen eta lizitazioaren xede direnen artean dagoen antzekotasun maila nahiko ote den, lan haiek egin zituen enpresak kontratu lizitatutako prestazioak gauzatzeko behar adinako gaitasun teknikoa baduela ondorioztatzeko.


Ezaugarri Teknikoen Baldintza Agiriko 2. apartatuak, zerbitzu prestazioaren xehetasunei buruzkoak, jasotzen duenaren arabera, garraioko zaintza pertsonalaren zerbitzua definitzeko unean kontuan hartu da Uliazpiren eginkizuna dela Gipuzkoako lurraldean desgaitasun intelektual eta laguntza behar handiak dituzten pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko zerbitzuak bermatzea. Horrekin bat, adierazten du zerbitzuaren oinarriak hauek direla: erabiltzaileei arreta ematea ibilgailura igotzeko zein bertatik jaisteko unean; erabiltzaileei segurtasun uhala egoki jartzea bidaia hasi aurretik, eta amaitzean kentzea; pertsonak zainduta eta ikuskatuta egotea ibilgailuan dauden bitartean; eta, zerbitzua amaitu ondoren, erabiltzailea

trabajos a efectos de la acreditación de la solvencia, a su juicio contraria a la doctrina administrativa y jurisprudencial existente. En el segundo se consideran vulnerados los principios de igualdad de trato, libre competencia y no discriminación contemplados en los artículos 1 y 139 del TRLCSP. En el tercer motivo aduce la nulidad de los pliegos del contrato por entender que amparan una actuación arbitraria del órgano de contratación. Finalmente alega la falta de motivación del acuerdo de exclusión puesto que considera que la titulación de la persona coordinadora de la actividad cumple con el requisito relativo a la solvencia profesional exigido por los pliegos.

SÉPTIMO.- A la vista de las razones que fundamentan la exclusión y las alegaciones de la recurrente, la cuestión se centra en determinar, en primer lugar, si los servicios por ella prestados y acreditados son similares a los que constituyen el objeto del contrato.

El Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales ya ha señalado en diversas resoluciones, como en la 150/2013, de 18 de abril, que cita en la 799/2016, de 7 de octubre, que *“para apreciar la similitud entre el objeto de los servicios o contratos realizados y los que son objeto del contrato, toda vez que se trata de acreditar solvencia técnica de la empresa, ha de atenderse a una valoración de las condiciones técnicas exigidas a aquellos trabajos, comparándolos con las exigidas en el contrato objeto de licitación, atendiendo para ello a los pliegos de prescripciones técnicas, toda vez que a ellos está reservado especificar las características técnicas que haya de reunir la realización de las prestaciones del contrato, conforme a lo dispuesto en los artículos 116.1 del TRLCSP y 68.1.a) del RLCAP.”* Se trata, en definitiva, de una evaluación técnica del contenido de las prestaciones de los contratos dirigida a *“determinar si entre las prestaciones ya realizadas y las que son objeto de licitación existe el grado de semejanza necesario para concluir que la empresa que llevó a cabo aquellos trabajos tiene capacidad técnica suficiente para ejecutar las prestaciones del contrato licitado”*.

El apartado 2 del Pliego de Prescripciones Técnicas, relativo al detalle de la prestación del servicio, señala que el servicio de cuidados personales en el transporte se ha definido considerando que la misión de Uliazpi es garantizar los servicios que mejoren la calidad de vida de las personas con discapacidad intelectual e importantes necesidades de apoyo en el Territorio de Gipuzkoa. De acuerdo con ello se indica que el servicio se basa en lo siguiente: atender a las personas usuarias en el momento de acceder y bajarse del vehículo; colocarles adecuadamente el cinturón de seguridad antes de iniciarse el traslado y quitárselo una vez finalizado éste; ser atendidas y supervisadas mientras estén en el vehículo; y, una vez



behar bezala artatuta dagoela ziurtatzea, bai Fundazioaren arduradunen, bai lantegietako arduradunen, bai familia edo tutoreen beren aldetik.

Kontratazio organoak emandako txostenean, "antzeko xede" terminoaren interpretazioari dagokionez jasotzen da ezen Kontratazio Mahaiaren borondatea interpretazio zabal bat egitea izan dela, bere aplikazio esparruaren barnekotzat harturik zaintzaileak edo laguntzako pertsonala badirela garatzen diren garraio zerbitzu guztiak; pertsonen garraio erregularrak ez diola erantzuten kontratuaren xedeari; eta, ibilgailuen irisgarritasunetik harago, Uliazpiko erabiltzaileek langile espezializatuen laguntza eta zaintza behar dutela zerbitzu prestazioan zehar.

ZORTZIGARRENA.- Hortaz, baldintza-agirietan garraioko zaintza pertsonaleko zerbitzu esaten bazaio ere zerbitzuari, Uliazpi Fundazioaren Gobernu Batzordearen erabakiak, lizitaziorako deialdia onartzekoak, onartzen duena da Donostia eta Fraisoro zentroetarako garraio zerbitzua kontratatzekeo espediente -16-07 zenbakikoa- abiatzea.

Horrekin bat, ibilbideez eta ordutegi finkatuz gain ibilgailuek pertsona desgaituak garraiatzeko ezaugarri espezifikoak eduki behar dituztela aurreikusten da baldintza-agirietan, gurpil-aulkiak igotzeko plataforma bat ere eduki behar dutela, eta baita horretarako egokitutako plaza bat ere; beraz, ezinbestekoa da esleipendunak bitarteko material horiek edukitzea.

Auzitegi honen iritziz, baldintza-agirietan jasotzen den kontratuaren izena "garraioan zaintza pertsonaleko zerbitzua" bada ere, zerbitzu hori eman beharraren eragilea, hain zuzen, erabiltzailearen garraioa bera da, hau da, erabiltzaileak garraiatu behar direnean ematen da zerbitzua; horrenbestez garraioa, berez, kontratuaren funtsezko elementuetako bat da.

Errekurtsogileak Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen esparruko errepide bidezko bidaiarien garraio publiko erregularreko zerbitzuak bateratzeko araudia (GAO, 2015eko otsailak 25) gogoratzen du.

Araudi edo erregelamendu horren xedea garraio zerbitzu publikoaren prestazioa arautzea da, pertsona guztien irisgarritasun unibertsala bermaturik, eta horretarako beharrezko baldintzak ezartzen ditu, kontuan harturik, bereziki, mugikortasun murriztua

finalizado el servicio, asegurarse de que la persona usuaria queda debidamente atendida bien por responsables de la Fundación, responsables de talleres, o por la propia familia o tutores.

En el informe emitido por el órgano de contratación se recoge, respecto a la interpretación del término "objeto similar", que ha sido voluntad de la Mesa de Contratación realizar una interpretación extensiva, entendiendo dentro de su ámbito de aplicación a todos aquellos servicios de transporte que se desarrollan con asistencia de personal cuidador o auxiliar; que el transporte regular de personas no da respuesta al objeto del contrato; y que más allá de la accesibilidad de los vehículos, los usuarios de Uliazpi requieren la asistencia y el cuidado de personal especializado durante la prestación del servicio.

OCTAVO.- Pues bien, aunque en los pliegos se denomina al servicio como de cuidados personales en el transporte, en el acuerdo de la Junta de Gobierno de la Fundación Uliazpi de aprobación de la convocatoria de licitación, lo que se aprueba es "*el inicio del expediente de contratación del servicio de Transporte para los Centros Donostia y Fraisoro, expediente número 16-07*".

En coherencia con ello se prevé en los pliegos, además de los itinerarios y horarios marcados, que los vehículos deben reunir las características específicas para el transporte de personas con discapacidad y estar dotados de plataforma elevadora para sillas de ruedas teniendo, al menos, una plaza habilitada para ello, siendo imprescindible por tanto que la adjudicataria disponga de estos medios materiales.

Este Tribunal considera que, aunque la denominación del contrato recogida en los pliegos sea la de "*servicio de cuidados personales en el transporte*", la necesidad de la prestación de este servicio está motivada precisamente por el traslado de la persona usuaria, es decir, se presta con ocasión del traslado de las personas usuarias, por lo que el transporte, en sí mismo, es un elemento esencial del contrato.

La recurrente invoca el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera, en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (BOG 25 de febrero de 2015).

El citado Reglamento tiene por objeto regular la prestación del servicio público de transporte garantizando la accesibilidad universal de todas las personas, para lo que establece los condicionantes necesarios, con especial consideración a las personas

du ten pertsonak.

Horretarako, Erregelamenduak mugikortasun murriztua duten bidaiaritzat hartzen ditu, besteak beste, aulki gurpildunetan lekualdatzen diren pertsonak eta zentzumen zailtasunak (ikusmena, entzumena, mintzamina) eta adimen-zailtasunak dituzten edo garraio-zerbitzu arrunta erabiltzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak (8. art.); bidaiariak geltokiren batean zerbitzuaren erabilera eskatzen duen unetik, bidaiatzen ari den bitartean eta beste geltoki batean ibilgailutik jaisten den arte ematen da zerbitzua (3. art.); irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, garraio zerbitzuaren titularra den administrazioak sustatu egingo du garraio-operadoreetako langileei prestakuntza egokia ematea, mugikortasun murriztua duten bidaiarien beharrei erantzutearren (7. art.).

Oraingo kasu honetan ez da garraiorako kaudimen teknikoaz eztabaidatzen eta, egiaztatutako esperientzia berdina ez bada ere, ezin da ukatu antzekoa behintzat badela, zeren eta, Uliazpi Fundazioaren jardura desgaitasun intelektuala duten eta arreta berezia behar duten pertsonen arretara zuzenduta badago ere, zailtasun sensorialak edo intelektualak dauzkaten bidaiariei ere ematen baitzaie garraio zerbitzu publiko erregularra, aipatutako baldintzetan.

Izan ere, dagoeneko azaldu moduan, garraio zerbitzu erregularrean ari diren gidarien obligazioa da erabiltzaile guztiei laguntzea, geltoki batean daudela ibilgailua erabiltzea eskatzen dutenetik zerbitzua ematen duen ibilgailuan sartu arte, bidaiari zehar hurrena, eta beste geltoki batean ibilgailutik jaisten diren bitartean.

Azaldukoagatik, Auzitegi honen iritziz errekurtsogileak egiaztatutako zerbitzuak lizitatzen ari den kontratuaren xede diren antzekotzat har daitezke eta, horrenbestez, betetzen du baldintza-agirietan ezarritako kaudimen teknikoaren baldintza, alderdi honi dagokionez.

BEDERATZIGARRENA.- Kontratazio Mahaiak errekurtsogilea baztertzeko oinarri hartzen duen bigarren arrazoa zera da, ez dela egiaztatzen jardura kontratuaren koordinazio eginkizunak bere gain hartuko dituen pertsonak behar duen gutxiengo titulazioa.

Baldintza Administratibo Partikularren Agiriko 9.2 klausulan adierazten denez, kontratatzen den jardura koordinatzeko eginkizunak eta Uliazpi Fundazioarekiko harremanak bere gain hartzen dituen pertsonak

con movilidad reducida.

A tal efecto, el Reglamento considera personas viajeras con movilidad reducida, entre otras, a las personas usuarias que se desplazan en sillas de ruedas y a las personas usuarias con dificultades de tipo sensorial (visión, audición, habla), intelectual o con importantes dificultades para utilizar un servicio de transporte convencional (art. 8); el servicio se presta desde que la persona viajera se encuentra en una parada demandando la utilización del vehículo, hasta que embarca en el vehículo que presta el servicio, durante el traslado y hasta que desembarca de dicho vehículo en otra parada (art. 3); como garantía de accesibilidad y movilidad la Administración titular del servicio debe promover que el personal de las empresas operadoras de transportes reciba la formación adecuada al objeto de responder a las necesidades de las personas viajeras con movilidad reducida (art. 7).

En el presente supuesto no se discute la solvencia técnica en lo que al transporte se refiere y, si bien la experiencia acreditada no es idéntica, tampoco se puede negar que sea cuando menos similar, ya que, si bien es cierto que la actividad de la Fundación Uliazpi va dirigida a la atención de personas con discapacidad intelectual que requieren de especial atención, el servicio público regular de transportes también se presta a las personas viajeras con dificultades de tipo sensorial o intelectual en las condiciones expuestas.

De hecho, como se ha señalado, los conductores que prestan el servicio regular de transporte tienen la obligación de asistir a todas las personas usuarias desde que se encuentran en una parada demandando la utilización del vehículo, hasta que embarcan en el vehículo que presta el servicio, durante el traslado y hasta que desembarcan de dicho vehículo en otra parada.

Por lo expuesto, este Tribunal entiende que los servicios acreditados por la recurrente pueden considerarse similares a los que constituyen el objeto del contrato que se licita, y que por lo tanto cumple en este aspecto con el requisito de solvencia técnica establecida en los pliegos.

NOVENO.- El segundo motivo en el que se basa la Mesa de Contratación para acordar la exclusión de la recurrente es que no se acredita la titulación mínima requerida a la persona que asumirá las funciones de coordinación de la actividad contratada.

En la cláusula 9.2 del PCAP se indica que la persona que asuma las funciones propias de coordinación de la actividad que se contrata y de relación con la Fundación Uliazpi requerirá una titulación mínima de



lizentziatura edo unibertsitateko gradu maila izan beharko du, gutxienez, hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko C1 euskara mailarekin batera.

Erakunde errekurtsogileak dio koordinatzaileak betetzen duela baldintza-agirietan eskatzen den kaudimen profesionalaren baldintza, zeren eta hutsak zuzentzeko onartutako tramitean egiaztatu baitzuen koordinatzaileak aurkeztutako titulazioa bat datorrela MECESeko 'gradu' deitutako 2. mailarekin.

Uliazpi Fundazioak emandako txostenean adierazten da Kontratazio Mahaiak zenbait kontraste egin zituela titulazio horiek ematen dituzten unibertsitate-instantziekin, eta horiek argi utzi zutela diplomaturaren eta gradu edo lizentziaturaren artean dagoen aldea. Hurrena dioenaren arabera, diplomatura eta gradu arteko baliokidetasuna lortzeko ikastaroak eskaintzen dira ("egokitze ikastaro" deituak), Gizarte Laneko diplomadunak direnak gradu mailara iritsi ahal izan daitezzen.

Unibertsitate-ikasketa ofizialen antolaketa ezartzeari buruzko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriak bere 3. zenbakian aurreikusten duenaren arabera, pertsona batek diplomadun, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko titulu ofiziala daukanean gradu mailako titulu ofizial bat lortzera zuzendutako ikasketak egin nahi dituzenean Errege Dekretuak berak 13. artikuluan aurreikusten duenarekin bat onartuko zaizkio kredituak.

Horrek argi eta garbi uzten du ez gaudela zuzeneko parekatze baten kasuan. Diplomatura, legez, ez da ez lizentziaturaren ez graduaren baliokide.

Honi dagokionez, Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren komunikazioak, errekurtsogileak aurkeztu baitu akatsak zuzentzeko errekerimenduari erantzuteko idazkiarekin batera, adierazten du ezen *Gizarte Laneko diplomatura bat duten pertsonak ez dutela gradu titulu berririk eskuratuko, eta ezingo direla gradudun deitu; hau da, ez da ez homologaziorik ez baliokidetze zuzenik. Bolonia aurreko titulu bat edukitzen jarraituko da (diplomatura), eta hori Goi Mailako Hezkuntza Esparruaren (GMHEE) gradu titulu "berri" batekin parekatuko da. Beraz, batez ere europar esparrura zuzendutako argitze bat da, horretan ez baita ez diplomaturarik ez lizentziaturarik, argitzearren Europar lan egitera irtezez gero egungo zein tituluri dagokion Gizarte Laneko diplomatura.*

Licenciatura o Grado universitario así como el nivel de euskera C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

La entidad recurrente señala que la coordinadora cumple con el requisito de solvencia profesional exigido por los pliegos, ya que en el trámite de subsanación que le fue concedido ya acreditó que la titulación aportada por la coordinadora se corresponde con el nivel 2 del MECES denominado grado.

En el informe emitido por la Fundación Uliazpi se señala que la Mesa de Contratación realizó contrastes con instancias universitarias que expiden tales titulaciones, las cuales avalaron la diferencia existente entre la Diplomatura y el Grado o la Licenciatura. Añade que, a efectos de obtener la equivalencia entre Diplomatura y Grado, se ofertan cursos (llamados "cursos puente") para que quienes son poseedores de Diplomatura en Trabajo Social puedan acceder al Grado.

La disposición adicional cuarta del Real Decreto 1393/2007, de 29 de octubre, que establece la ordenación de las enseñanzas universitarias oficiales, prevé en su número 3 que *"quienes, estando en posesión de un título oficial de Diplomado, Arquitecto Técnico o Ingeniero Técnico, pretendan cursar enseñanzas dirigidas a la obtención de un título oficial de Grado, obtendrán el reconocimiento de créditos que proceda con arreglo a los previsto en el artículo 13 del presente Real Decreto"*.

De ello se desprende con claridad que no estamos ante un supuesto de equiparación directa. La Diplomatura no equivale legalmente a la Licenciatura ni al Grado.

A este respecto, en la comunicación del Colegio Oficial de Trabajo Social de Bizkaia, aportada por la recurrente junto al escrito de contestación al requerimiento de subsanación, se indica que *"aquellas personas con una Diplomatura en Trabajo social no obtendrán un título nuevo de Grado, ni podrá llamarse "graduado/a", no se trata ni de una homologación ni de una equiparación directa. Se seguirá teniendo un título pre-Bolonia (Diplomatura) que tiene una correspondencia con un "nuevo" título de Grado del Espacio Europeo de Educación Superior (EEES). Consiste, por tanto, en una aclaración destinada sobre todo al ámbito europeo, donde las diplomaturas/licenciaturas no existen, para aclarar en el caso de que se salga a trabajar a Europa, a qué título actual corresponde la diplomatura en Trabajo Social"*.

Beraz, kontuan harturik Baldintza Administratibo Partikularren Agiriko 9.2 apartatuak eskatzen duela kaudimen profesionala gutxienez lizentziatura edo unibertsitateko gradu mailako titulazioa aurkeztuz egiaztatzea eta dokumentazio hori ez dela aurkeztu, alderdi honi dagokionez ezin du aurrera egin errekurtsogilearen asmoak.

HAMARGARRENA.- Azkenik, eta errekurtsogileak egin duen LARRIALDIK, S.COOP. eta AUTOCARES DÍEZ, S.A. lizitazio prozeduratik baztertea erabakitzeke eskaerari dagokionez, adierazi behar da ezen, SPKLTBren 40.2.b) artikularekin bat, lizitatuak onartzeko erabakiak Kontratazio Mahaiaren tramiteko ekintzak direla eta horien kontra ezin dela kontratazio alorreko errekurtsu berezirik aurkeztu.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Ezestea COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A.k jarri duen kontratazio alorreko errekurtsu berezia.

BIGARRENA.- Kentzea Auzitegi honek 2016ko urriaren 18an erabakitako kautelazko etetea.

Kontratuen Legeko 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Por tanto, habida cuenta que el apartado 9.2 del PCAP requiere la acreditación de la solvencia profesional mediante la presentación de una titulación mínima de Licenciatura o Grado universitario, documentación que no ha sido aportada, no puede prosperar en este aspecto la pretensión de la recurrente.

DÉCIMO.- Por último y en cuanto a la petición de la recurrente de que se acuerde la exclusión del procedimiento de licitación de LARRIALDIK, S.COOP. y de AUTOCARES DÍEZ, S.A., debe señalarse que, de conformidad con el artículo 40.2.b) del TRLCSP, los actos de la Mesa de Contratación por los que se acuerda la admisión de licitadores son actos de trámite no susceptibles de recurso especial en materia de contratación.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ACUERDA

PRIMERO.- Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la COMPAÑÍA DEL TRANVÍA ELÉCTRICO DE SAN SEBASTIÁN A TOLOSA, S.A.

SEGUNDO.- Levantar la suspensión cautelar acordada por este Tribunal en fecha 18 de octubre de 2016.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2016ko abenduaren 22a / San Sebastián, 22 de diciembre de 2016.